

EGUNEKO DIANAK



AEK

Euskal kultur eta kirol munduko hogeiren bat pertsonaia bildu zituen atzo AEKk Bilbon, beraien esperientzia kontatzearekin batera, euskalgintzak arlo desberdinetan egin duena ezagutzera emaneko. «Euskara ikastea eta lantzea hizkuntza bat ikastea baino gehiago, kultur errealitate zabal baten partaide izateko bidea da» argudiatu zuten guztiek / 8



Ardatz Atlantikoko elkarte

Ardatz Atlantikoa bultzatzeko Elkar-tea eratu zen atzo Coimbran (Portugal). Euskal Herriarekin batera, Portugaleko bi eskualde, Frantziako Poitou, Charentes, Akitania eta Erdialdeko eskualdeak eta Espainiako Castilla-Leon, Madrid eta Galizia dira elkarre berriko partaideak. Ardatz Atlantikoaren garapen ekonomikoa bultzatzea da beronen helburua / 11



Juan Gorriti

Juan Gorriti artista larraundarraren erakusketak zabaldu zituen atzo Lehenberriko Mintxasenean Kultur Etxeko ateak, lehenengoz. Hilabete iraungo duen erakusketa honek interes handiko lanak jasotzen ditu: euskal altzari herrikoiak, pinturak eta irudiak. Bereziki, egurrean egindako esku-lanetan saiatzen da Gorriti eta zura, zuhaitzak, lurra eta sustraiak ditu lehengai / 24



Radio Blanca


Nafarroako Gobernuak azaroan banatutako irratizietako bat 'Radio Blanca' irratia egokitu zitzaion. 'Radio Blancak' bere lizentzia 'Onda Cero' kateari saldu dio, Gobernuari baimenik eskatu gabe, foru dekretuak aipatu baimena behar beharrezkoa deladion artean. Colin kontseilariak EGUNKARIARI azaldu dio, bere departamentuak ez duela horretarako eskaririk jaso ezta baimenik eman ere / 9

Segundo Azpiazu: «Hamalau urterekin konplexuak banituen baina gero akabo»

A. ITURRIOTZ / DONOSTIA

2,10 metro ditu Segundo Azpiazu, Askatuak saskibaloitaldeko jokalaritza eta entrenatzaile izandakoak. Luzea zeto-rrera gazte gaztetatik nabaritzen omen zitzaion eta hamar hamalau urterekin konplexuak izan zuela aitortzen du. Zenbat neurtzen zenuen ba? «Jesus, Maria eta Jose! Urte haik aspaldi pasa ziren», da bere erantzuna. Hain altua izateagatik, anekdota barregarri asko izan ditu baina hauek kontatzea ez zaio gustatzen, «eta horrela, horetan, gutxiago» esan du.

Saskibaloian nahiko berandu hasi zen, hamazazpi urte zituela, «fortzatuta nolabait —esan du—. Beno, jendeak animatuta, esango nuke». Atletico San Sebastian taldeak hartu zuen. «Ordurarte ez nuen ezertxo egin saskibaloian eta kirol mailan ere gutxi. Oso gogorra izan zen baina Gaska entrenatzailea oso elementu ona zen eta beraren animazio eta indarrarekin egin nintzen jokalaritza. Pibot postuan jarri zuten, jakina. Jokalaritza oso disziplinatua zela eta entrenatzaileak agindutakoa ondo betetzen zuela adierazi digu: «Oso errieta gutxi egiten zidan, nirekin ez zuen behar izaten». Donostiako taldea utzi eta Barcelonara egin zuen salto. «Donostiako ekipoa lagun ekipoa bat zen, lagun talde bat. Barcelonan profesional gehiago, kanpoko jende gehiago zegoen eta giroz aldatzea izan zen zailena». Bertako joko dinamikara, ordea, aise ohitu zen Az-



JOXEAN GOYA

SOSLAIA

Parte Zaharrekoa

Gurasoak ez ditu oso altuak, «handiak bai». Ezkongabe geratu da, baina altuek ligatzeko arazorik ez dutela esan du. Gizon altuari derrigorrez emakume altua dagokionik ez du uste, «horretarako ez dago neurrik». Parte Zaharrean asko ibiltzen da, «pentsa, bertan jaio eta bizi naiz. Kanpoko jendea Parte Zaharrera badator, bertakoak nola ez». Arropa eta oinetakoak neurritan egiten dizkiote. Pertsona alai da, «nere momentu txarrak ere izaten ditudan arren; koktel bat bezalakoa naiz» dio. Gureak enpresako zuzendari administratiboa da. Gerora begira, ezer berezirik ez, «hala bizitzea». Baina politikoei seriosoak izateko eskatuko lieke.

piazu, «amateur izan arren profesional bezala lan egiten genduelako Sansen» argitu du. Barcelona utzi eta Bilboko Kasaldera pasa zen ondoren eta hiru urteren buruan Askatuakera. Jokalaritza bezala bi urte besterik ez zituen egin hementxe eta gero entrenatzaile kargu hartu zuen. «Garaia nuelako utzi nuen jokoa: forma ez nuen galdu, baina lesioak izan nituen eta behin horretan hasita, malo. Hobe izaten da bai, goian zaudela uztea, hondoan jo duzunean uztea baino» erantsi du.

Entrenatzaile bezala bederatziru urte egin zituen. Jokoa konzentratzea, entrenamenduetan prestatutako jokaldiak ondo egitea bakarrik eskatzen zien mutilei, «beste ezer interesgarririk ez —dio—. Esan beharrik ez nien, partidu baten bezperan parrandarik ez botatzeko; jokalaria bera ere konturatzen da zaintzen ez bada ez duela ezer egiterik. Halere, segun eta zer egunetan, parrandak bai noski». Partidu batean gehiena zenbat puntu egin dituen ez daki Azpiazu. «Partiduak ez dira neurtzen lortutako puntuen arabera. Batean 5 puntu eta bestean 35 egin ditzakezu eta lehenengoa bigarrena baino garrantzitsuagoa izan» esan du. Barcelona du faborito, «baina nere ekipoa Askatuak izan da beti». Askatuak taldean lan egin egin behar dela uste du. «Azken urteotan kompetizioa hasi baino hamabost egun lehenago hasi dira ekipoa osatzen, diru arazoak direla eta. Horrela ezin da ekipa serio bat edukin».

LERRU GUTXITAN

Ikasturte berriaren hasiera kolokan dago EHUn LABen hitzetan

LABen ustez, aurreko Errektoretzaren jarrera erreprexisoak eta gestioan egindako akatsek kolokan jarri dute EHUKo aurtengo ikasturtearen hasiera, eta baita Errektoretza aukeratzeko egingo diren hauteskundeak ere. LABek unibertsitateko sektore desberdin gehienek batasuna lortzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Irtenbideak egon badaudela eta berauek ziurtatu gabe ez duela inolako Errektoregoko alternatibarik bultzatuko esan zuen.



LEHOIAREN magalean hartu du loak zirko-gizonak.

Lozorro goxoan dago, lasai lasai eta segur, animalia ondoan. Edonon ez litzaioke piztiari bi metro gerturatuko, kaiolan egonda ere. Ez da gutxiagorako! Ikusi bestela bere ahoa.

Mikis Theodorakisekin

Mikis Theodorakis musikagilearekin izandako solasaldia izango duzue bihar. Urriaren lehen 'Medea' opera estreinatuko du Theodorakisek Arriaga Antzokian eta egunotan Bilbon dagoela aprobetxatuz, beregana jo dugu, obra horretaz eta bere produkzioaz hitzegiteko.



Mikis Theodorakis.

ONCE

ASTELEHENA	01.207
ASTEARTEA	09.099
ASTEAZKENA	68.598
OSTEGUNA	15.252

KUPOITZARRA

OSTIRALA

63.992

016. SERIEA

DONOSTIA
OIA RTZUN
ARRASATE

Zure etxeko kafea.
Zaporea, lurrina... bereziena...
kolombiarra ehunetik ehun.
Kolombiako kafearen agiria duen Euskal
Herriko etxe bakarra.

LA CASA DEL CAFE

San Martzial, 19. DONOSTIA Tel.: 424512 ARRASATE Tel.: 790346 OIA RTZUN Tel.: 491642